

Denbora

Ez dut denbora ulertzen

ulertzen dut urte bat

365 egun direla

eta egun bakarrean

24 ordu daudela

eta berdin, ordu bakarrean

60 minutu daudela

baina ez dut ulertzen nola

egunak hain mantso pasata

doazen urteak hain azkar

aldi berean

erlojuari begiratu eta badirudi

denbora ez doala aurrera

minutuek bukaezinak dirudite

baina gero bat-batean

jada ez dut haur bat ikusten

ispilu aurrean

orain ez noa parkera

eta ez ditut urtebetetzeak ospatzen

lehengo lagunen artean

horregatik esango dute

orainaz gozatu behar dela

baina hau ezinezkoa da

iraganean pentsatzen

eta etorkizunaz arduratuta
bizitzen bagara
hau aldatzen saiatu naiz baina
ezin dut
nola utzi alde batera
etorkizuna nire eskuetan badago
ni naiz nire bizitza biziko duena

ez esan ez arduratzeko
17 urte baitauzkat eta oraindik
ez dut biderik argi
badakit gaztea naizela
oraindik bizitza aurretik dudala
baina atzean geratzearen
sentsazioak jarraitzen nau

dortoka naizela pentsatzeak
lasaitu egiten nau
poliki urrun iristen dela
baina dortoka motelak
helmuga bat du eta nik
nire norabidea galdu dut

ez esan azkar ibiltzeko
inoiz ez baita berandu
helmuga aurkitzeko
ez dagoelako beti aurrean

egin nahi duzuna

edo sortzeko desira

hor baita

beti aurkitzen

saiatzen garen larrea

Idoia Sebastian Garaizar
BATX 1E